

Parte-hartzea, nortasuna eta kontra-portaera Iparraldean

Igor Ahedo Gurrutxaga
Parte Hartuz taldeko kidea

Azken bi hamarkadetan Iparraldean jazo den bilakaera ikustea nahikoa da lurralde horretan gertatzen ari den aldaketa politiko sakonaz ohartzeko. Aldaketa horrek zenbait elementutan du oinarri: 1) tokiko ezberdintasuna berraurkitzea; 2) euskal nortasunaren garapena; 3) erankundetze-eskariaren hastapena, Iraultzaren ostean Iparraldean *Pirinio Atlantikoen Departamenduan* sartzearen ondorioa dena; 4) abertzaleen zentralitatea, zenbait hauteskundetan lortutako botoen % 10-15 baino eragin askoz ere nabariagoa duena. Oro har, aipaturiko lehenengo hiru aldagaiak —ezberdintasuna, nortasuna, instituzionalizazioa— ulergarriak dira bakarrik abertzaleen esparruak 90eko hamarkada arte izan duen zeregina kontuan hartuz. Eta kontrakoa, hiru aldagai berri horien egonkortasunak abertzaletasunaren egoera eta jarrerak indartzen ditu.

It is enough to have a look at how the Northern Basque Country has been evolving over the past two decades to realize that there is a profound political change taking place. That change is based on several different elements: 1) rediscovering new local peculiarities 2) the development of the Basque identity 3. Beginnings of a demand for insitutionalization, which is a consequence of the Basque Country being incorporated into the Department of *Pyrénées Atlantiques* after the French Revolution 4) Central importance of the Basque nationalists whose influence goes far beyond the 10-15% share of the vote in various elections. Over all, the first three variables that have been mentioned —differences, identity, institutionalization— can only be understood by taking into account the role that the Basque nationalist political spectrum has had until the 1990's. And on the contrary, the stability of those three variables has strengthened the situation and attitudes of Basque nationalism.

1. Prozesu auto(su)gestiboa

Hala ere, aldaketa hauek guztiak ulergarriak dira Estatuaren agintariek gertatzen ari zen tokiko desegituraketa nolabait gelditzeko martxan jarri zuten *parte hartzeko eta mobilizatzeko* berezko eredia kontuan hartzen badugu. Gauzak horrela, 1992. urtean hasten den *Euskal Herria 2010* lan-dinamikak prozesu auto(su)gestiboa (Villasante, 2001) ahalbidetzen du. Prozesua aurrera doa eta 2003. urtetik aurrera tokiko onarpen falta gainditzeko saiatzen ari da, horretarako kontraboterearen estrategia erabiliz, orain dela gutxi Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortzearekin bat gauzatzen hasi dena:

- *Auto*: tokiko eragile guztiek (Administrazioa eta hautetsiak, gizarte zibilaren ordezkariak barne) tokiko errealtatearen gaineko diagnostikoa adosten dutelako. Horretan, tokiaren garapena bermatzeko hainbat proposamen zehatz jasotzen dira: *Euskal Herria 2010*.
- *Gestiboa*: toki-mailako proposamenak parte hartzeko sistema zabala eta korapilatsua erabiliz egiten direlako; eta euren martxan jartzea eragile guztien interesak kontuan hartzen dituen sare batek Estatu, Eskualde (Erregio) eta Departamenduko aginteriekin negoziatzen duelako. Aipatu sareak egitura bikoitza du; alde batetik, gizarte zibilak (Garapen Kontseilua) proposatzen du, eta beste alde batetik, hautetsiek (Hautetsien Kontseilua) erabakitzen dute. Bi erakunde horiek ez dute euren proposamenak aurrera ateratzeko ahalmenik baina garbiki adierazten dute Iparraldeko lurraldetasuna eta ezberdintasuna.
- *Sugestiboa*: eragile guztiek euskal lurraldearen markoan garatzen dutelako beren lana. Horrela, errekonozimendu instituzionalik gabeko errealtatea gorpuzten da herritarren artean eta eragile guztien barne-errekonozimendua gertatzen da, hasieran. Geroago, Estatuak tokiko berezitasuna kontuan hartzen du, eragileek egindako proposamenak martxan jartzeko asmoz baliabide ekonomikoak emanez (*Hitzarmen Berezia*). Hala ere, errekonozimendu politiko-instituzionala ez da egiten. Horregatik eragileek parte hartzeko era honen muga argiak barneratzen dituzte, denon artean adostutako proposamenak martxan jartzeko egitura instituzionala euren kabuz egiteko beharra nabarmentzen dutelarik. (Ahedo, 2005a).

Gauzak horrela, oinarritzko hipotesia hauxe da: 1) garapen-egitasmoa diseinatzeko prozesu parte-hartzailea martxan jartzeak lurraldean eragileen barne-ezagutza ahalbidetzen du; 2) barne-ezagutza horrek orain arte krisian egon den tokiko nortasuna bultzatzen du; 3) lurraldearekiko atxikimendu horrek etorkizunari begira konpromisoa lantzen du; horrela, administrazioak guztien parte-hartzearekin adosturiko proposamenak atzera bota, eragotzi edo errazten ez dituen kasuetan, eragileek horietan martxan jartzeko era eta modu berriak bilatuko dituzte; 4) bukatzeko, parte-hartzearen mugak —tokiko erakundeek proposamenak gauzatzeko gaitasun falta horretan laburbilduak— administrazioak onartu nahi ez dituen erakunde berriak eraikitzekeko estrategia ahalbidetzen du.

Azken finean, agintariek lurraldeari *boterea* (erakunde bat) emateko izan duten borondate falta horrek, 1992an zenbait eragilek garapen-estrategiak adosteko modu parte-hartzailea indarrean jartzea azaltzen du (Garapen Kontseilua eta Hau-

tetsien Kontseiluaren bitartez gobernatzea). Hala ere, paradoxikoki, parte-hartzearen mugak, proposamenak politikoki gauzatzeko egitura egokiak ez izate horretan zehaztuak, berezko kontraboterea eraikitzeke adostasun zabala sortzen du.

2. Abiapuntua

Iparraldea Frantziako hego-ekialdean kokatuta dago eta 262.000 biztanle inguru ditu (1999. urtean) hiru herrialde historikoetan banaturik: Lapurdi (*Labourd*), Nafarroa Beherea (*Basse Navarre*) eta Zuberoa (*Soule*). Ez dauka errekonozimendu instituzionalik eta kultura okzitaniarra duten Biarnoko lurraldeekin batera Pirinio Atlantikoen Departamendua osatzen du.

Errekonozimendurik ezaz gain, 80ko hamarkadan agerian gertatzen den tokiko krisi sakonaren atzean beste elementu batzuk daude: 1) lurralde-mailako desegituraketa, aberastasuna pilatzen duen zerbitzuetako kostaldearen eta indargabetzen ari den nekazaritzako barnealdearen artean; 2) barne-mailako garapenaren ezintasunak bultzaturiko krisialdi ekonomiko sakona; 3) demografiari loturiko gizarte-arazo larria: immigrazio altua alde batetik, eta bertako gazte-populazioaren emigrazio garrantzitsua, bestetik (Hemen, 2002); 4) euskararen eta kulturaren ahuldade gero eta nabariagoa; euskarari dagokionez, erabilera nabarmen jaitsi da, batez ere azken hamarkadetan (Urteaga, 2004); 5) bukatzeko, populazioaren polarizazio handia; izan ere, 158 euskal udaletatik bakarrik 10ek dute 3.500 biztanle baino gehiago eta horietako 6 kostaldean daude.

Hala ere, garai horretan Iparraldeak nortasun indartsua ere badu, sartuta dagoen *departamendu burubikoan* islatzen dena. Lurralde honen bereizgarriak nabariak, Biarnotik ezberdintzen dutenak, hauek dira: 1) toki-mailako autonomia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herrialde-biltzarretan zehaztua, Iraultzak 1789an ezabatu zuen arte; 2) berezko hizkuntza, euskara, Biarnoko gaskoiaren presentzia historikoaren aurrean; 3) zentro-eskuinak agintzen duen sistema politikoa, Biarnon dagoen botere sozialistaren aurrean; 4) errekonozimendu instituzionalaren eskari jarraitua eta historikoa, 1792. urtetik jasota dagoena, eta aldiro aldarrikatua, 1836, 1945, 1963, 1981, 1999 eta 2003. urteetan (Ahedo, 2003).

3. Lurralde-eragileak

Aurrerantzean eragile instituzionalak, politikoak eta gizarte-eragileak bereiziko ditugu eta 1992an abiatutako dinamika parte-hartzailea sortu arte haien arteko harremanak zehazten saiatuko gara.

3.1. Eragile instituzionalak

Frantziako eredu instituzionala zentrotik periferiara doazen zirkulu konzentrikoetan datza, goitik beherako eta zentralista den eredua irudikatuz. Sistemaren erdigunean Paris dago, Estatuko boterearen ikur gisa. Hala ere, zentralismo honek ez du eragozten hainbat egitura deszentralizatu agertzea: Eskualdea, politika ekonomikoak garatzeko marko aproposa; Departamendua, gizarte-mailako estrategiak aurrera ateratzeko esparru egokia; Udala, tokian tokiko politikaren ardatza.

Hala ere, egitura deszentralizatu hauek Estatuko boterea lurraldeetan ezartzeko markoa osatzen dute. Horrela, Eskualdeak eta Departamenduak badira egitura deskonzentratuak, prefet batek eta prefetorde batzuek zuzenduta (departamendu bakoitzak barrutiak ditu eta horietako bakoitzean prefetordea da Estatuko agintari gorena), hauek periferian Estatuko boterearen bermatzaileak izanik. Horrela, berezko egituraketa instituzionala ez izateaz gain, Iparraldea zatituta dago barne-mailan: Baionako prefekturak Lapurdiko eta Nafarroa Behereko kantonamenduak jasotzen ditu; Oloroekoak Zuberoako udalak jasotzen ditu, Biarnoko beste batzuekin batera.

3.2. Eragile politikoak

Iparraldeko sistema politikoan eragileen arteko harremanetan bereziak diren elementuak dira. Alde batetik, udal gehienek tamaina txikiak euren ordezkarien egoera markatzen du, gehienetan hautetsi handien pean baitaude. Horrela, sistema politiko frantziarrak zenbait politikarik hainbat kargu bere gain hartzea ahalbidetzen du. Osagai honek, Iparraldeko izaera periferikoarekin eta estatu-mailan ezberdina den kultura bat izatearekin batera, zentroaren eta periferiaren arteko bitartekariak diren *notable*ak diren politikari-mota sortzea ahalbidetzen du: kultura-mailako bitartekariak, Estatuko arrazoinamendua bertako errealitatera egokitzen dutelako; baita ekonomia-mailako bitartekariak ere, botereguneetan duten sarbideei esker komunitatearen garapena bermatzen dutelako. Beste alde batetik, lurraldea bere osotasunean jasotzen ez duen toki-mailako botererik ez egoteak suposatzen du ordezkari politikoek udala, kantonamendua edo gehienez barrutia ordezkatzea, Iparralde osorako estrategia koherente eta bateragarriak martxan jartzeko ahaleginak zailduz.

Hautetsi horiek 50eko hamarkadatik diskurtso jakobinoa bere gain hartu badute ere, zenbait politikarik euskal kulturarekin bat egingo dute: euren hautes-barrutian irabazteko beharrak hautesleen nahiekin abegikor agertzera behartzen ditu (horietariko batzuk euskaldunak dira, baina baita errealistak ere, Fourquet, 1988). Ildo berean, esparru kristau-demokratik euskal kulturarekin duen ohiko erlazioak ahalbidetzen du geroago abertzaleen zenbait oinarri bereganatzea, dinamika parte-hartzailea martxan jarriko denean. Bukatzeko, garai honetan euskal abertzaletasuna oso ahul dago, euskal nortasunaren krisiagatik, barne-mailan duten zatiketengatik eta Hegoaldetik Iparraldera egiten diren jarrera eta jokabideen translazio hutsagatik.

70eko hamarkadatik aurrera, Iraultzaren aurreko instituzionalizazio-formulei jarraituz, Iparraldean bi Biltzar daude (1994. urtean bateratzen direnak) zeinetan alkate guztiek parte hartzen duten. Hala ere, oraintsu arte, bietan herri txikiak hautetsiek *notable*ekiko, eta horiek administrazioarekiko dituzten harreman ustelak (klientelismoa) birsortu dituzte eta instituzionalizazio-eskaeren aurka agertu dira (Chaussier, 1994).

3.3. Gizarte-eragileak

Ipar Euskal Herriaren elkartegintza oso aberatsa eta askotarikoa da. Ekonomiaren ikuspegitik eragile nagusia Baionako Merkataritza eta Industria Ganbera dugu, Lapurdin dagoen portu horren giroan jaioa. Erakunde horrek 1836. urtetik

departamendu bereziaren aldeko jarrera agertu du, Baionako iparraldean dauden lurraldeak ere (Landeetakoak, historikoki) bereganatuko dituen departamenduaren alde, alegia. 90eko hamarkadatik bere barne-egiturak euskal lurraldetasunaren eskaera jaso du eta Paueko Ganberak Biarnoko eragile ekonomikoak integratzen ditu (Pirinio Atlantikoen Departamendua da Frantzia osoan bi Ganbera ezberdin dituen lurraldea) (Chaussier, 1996). Bestetik, Iparraldeko egoera behartsua ikusita, ulergarria da 70eko hamarkadan esparru euskaldunek eta kristau-demokratek bultzatuta Hemen eta Herrikoia taldeak sortzea, euskal ekonomia eta bertako enplegua sustatzeko jaiok, batez ere barnealdean.

Ekonomiaren arloan baitan CGT edo CFDT sindikatu frantsesak egotea nabaria da. Nekazaritzan, aldiz, FDSEaren aurrean euskal talde bat dago, ELB, 80ko hamarkadaz geroztik itzelezko hazkundea jaso duena, harik eta Iparraldean 2001. urtean gehingo osoa lortu arte. Hala eta guztiz ere, Paueko Laborantza Ganberan sindikatu honen ordezkariak mugatua da, Ganbera horren ordezkariak Departamendu osoan aukeratzen baita (ELB, 1999).

Ohikoa da euskal kultura eta hizkuntzaren alde lanean diharduten taldeak topagune batzuetan elkartzea, Ikas, Deiadar edo Euskal Konfederazioa, besteak beste (Oronos, 2001). Egindako hainbat eskarik erantzun egokia jaso badute ere, egia da oinarriko kontuetan (euskararen ofizialtasuna, irakaskuntza elibiduna) aurrerapausuak oso mugatuak izan direla, administrazioaren jarrera itxia dela eta (Ahedo, 2005b). 90eko hamarkadatik hona, badaude euskal kultura sustatzen saiatzen diren bi erakunde ofizial. Batetik, eragile kultural gehienak administrazioarekin zein hainbat hautetsirekin era bateragarrian lanean daude Euskal Kultur Erakunde (EKE); bestetik, hautetsiak euskal kulturaren defentsarako sortu den Sindikatu Interkomunalean daude.

4. Parte-hartzea eta lurraldea

Esan dugun moduan, toki-mailako parte-hartzearen prozesuaren abiapuntua Iparraldeak jasotzen zuen desegituraketa kultural, sozial, ekonomikoa nahiz administratiboan aurkitzen da. Horrela, 1992an aldagai guztiek bat egiten dute eta 500 herri-ordezkarik baino gehiagok estrategia bateratua bultzatzen dute, diagnostiko komuna eginez eta Iparraldeko garapena helburua izanik lurraldea bere osotasunean hartzen duten politika publikoak sustatuz.

“*Euskal Herria 2010*” gogoetarako Estatuko agintariek milioi bat franko bidertzen dute, horren gainbegiratzea *sare* konplexu baten esku dagoelarik, harremanetan jarriz a) estatuaren ordezkariak, bultzatzaileak direnak, b) hautetsiak, dinamizatzaileak direnak, eta c) “indar biziak”, aholkularitza-lanetan aritzen direnak. Zehazki, hiru eragile-mota horiek bi azpisaretan antolatzen dira, hierarkikoki ordenatuta: a) *talde eragileak*, kontseilari orokorrek, eskualdeko kontseilariak, senatariak, Iparraldeko bi Biltzarretako presidentek, ganbera konsularien presidentek eta ADEPAB Garapenerako Agentziaren presidentek osatuta; eta b) *zeharkako taldeak*, talde eragilearen ordezkariak, Estatuarenak, pertsona kualifikatuak eta lan-talde sektorialetako kideak batzen dituena. Horien eginkizuna da dinamikan zehar gauzaturiko lan guztiak balioztatzea.

Urtebete baino gehiago lanean eman ondoren, *Euskal Herria 2010* txostena Baionako Merkataritza eta Industria Ganberaren foro batean aurkezten da, Pirinio Atlantikoen Departamenduko hiru ministroak bertan daudela. Betetzen diren 300 orri baino gehiago adostuta dauden hiru dokumentuetan banatzen dira, 500 ordezkariak osatutako 10 lan-taldeetan jaso diren ekarpenen arabera sailkatuta:

- Lurralde hauen testuinguru ekonomiko, kultural, sozial eta administratiboa definitzen duen *diagnostikoa*.
- Euskal sistemaren *egitura-ezaugarri* garrantzitsuenak jasotzen dituen ikerketa, bai behin-behinekoak direnak, baita epe ertainean inportanteak izan daitezkeenak ere.
- Iparralderako etorkizun-aukerak planteatzen dituen *analisi prospektiboa*, kontuan hartuz, batetik, aurreko ikerketetan agerturiko errealitatea eta etorkizunerako tendentziak eta, bestetik, ordenamendu-politika integrala eta parte-hartzailea ezartzekotan sor litezkeen aukerak. Horren harira, aipatu analisian etorkizunari begira 6 aukera agertzen dira. Lehendabizikoak 1992ko joerak 2000. urte arte luzatzen ditu, hurrengo hirurek joera horiek 2010. urte arte luzatzen dituzte, hondamendia aurreikusiz. Bukatzeko, azken biek aukera boluntaristak dira eta etorkizun egonkorragoa aurkezten dute, baldin eta garapenerako estrategia martxan jartzea eta Iparraldea Europa eraikitzekeo prozesuan sartzea lortzen bada.

Hala ere, hiru dokumentu hauek logika orokor eta antzekoari jarraitzen diote; hasieran errealitatearen analisia egiten dute, geroago tokiko garapenari dago-kionez azpimarragarriak diren aldagaiak izendatzen dira, eta azkenik ateratako hasierako ondorioak elkartuz etorkizunari begirako balizko aukerak aurkezten dira.

Azken finean, *Euskal Herria 2010* txostenean agertzen den egoera ekonomiko eta kultural latzaren aurrean, pertsonalitate hauek beren gain hartzen dituzte orain arte abertzaletasunaren esparruak soilik defendatu dituen hainbat kontu: a) Iparraldeko lurraldetasuna eta berezitasuna onartzen da, administratiboki bi azpi-prefektoretan (Gobernuaren azpiordezkaritzak) eta Biarnorekin batera Pirinio Atlantikoen Departamenduan egon arren; b) EAE eta Nafarroarekin batera mugaz gaindiko lankidetzaren aldeko apostua egiten da; c) tokiko nortasuna kohesio elementutzat onartzen da, zeinak elkartasuna sortzen duen eta garapenaren bermea den, kultura eta euskararen sustapenerako apostua eginez; eta d) Iparralderako ordezkariak instituzionalaren mekanismoak martxan jartzea eskatzen da (CP, 1993).

Oinarri hauekin 1994 eta 1995ean Garapen Kontseilua (EHGK) eta Hautetsien Kontseilua (EHHK) sortzen dira: lehenengoak Iparraldeko ia eragile sozial, kultural, ekonomiko eta politiko guztiak biltzen ditu eta garapenerako proposamenak egitea dauka eginkizun nagusia (CDPB, 1994); bigarrena lurraldeko hautetsi guztiek osatzen dute, politika publikoen erabakigunea izanik. Hala ere, politika horiek gauzatzeko ardura erakunde ezberdinen esku dago (udal-mailakoak, departamendua, eskualdea, estatua) (CEPB, 1995).

Ariketa politiko zaila da hau, zeren orain arte mota hauetako dinamikak martxan jartzeko eragozpenak jarri izan dituzten bi esparruen arteko adostasunean oinarritzen baita. Abertzaleek egitura parainstituzional hau errefusatzen zuten, batetik

Miterrand-ek 1981ean euskal departamendua sortzeko egin zuen promesa alboratzen zuela uste baitzuten eta, bestetik, maila instituzional nahikorik ez zuelako. Hala ere, azkenean onartzen dute, orain arte ahaztuta izan den nortasunaren ikuspegia sartzen delako eta gizarte- eta kultura-taldeetan duten eragina eta pisuagatik EHGKren presidentzia lortzen dutelako. Beste alde batetik, hautetsi nagusiak historikoki egitasmo honen aurka agertu dira, hauteskundeetan jendeak adierazten duen borondatearen ordezkotzat zutelako. 90eko hamarkadan, aldiz, onartzen dute, sare hauek departamenduaren aldeko aldarrikapena baztertzearen adostasunarekin sortuak baitira eta hierarkian EHGK haiek kontrolatzen duten EHHKren menpe kokatuta baitago.

Policy network burubiko honen lehenengo eginkizuna euskal lurraldeen egoeraren gaineko diagnostikoa berregitea da. Lan honen emaitza da *Lurralde Antolamenduaren Eskema* (1997). Horretan, 200 ordezkari politiko, sozial, kultural eta ekonomikoen parte-hartzearekin, Iparraldearen garapena bermatuko luketeen 96 neurri zehatz adierazten dira. Hala ere, neurriak gauzatzeko mekanismorik eta eskumenik ezak, agintari ezberdinekin negoziatu beharra dakar, proposamenak martxan jartzeko baliabide nahikoak lortzeko asmoz. Eta hiru erakunde-mailek (Departamendua, Eskualdea, Estatu) Garapen Egitasmoa bere gain hartzen badute ere, horietako batek ere ez du jartzen egitasmoak finantzatzeko diru-sarrerara nahikorik —2000. urtearen bukaeran sinatu zen *Hitzarmen Berezia* izan arte—.

Gauzak horrela, une horretan politika publikoekin konprometituenak zeuden esparruen erreakzioa da ordura arte estalia izan den instituzionalizazioaren aldarrikapena berrartzea. Horrela apurtu zen garapen-dinamikaren hasierari notable nagusiek eman zioten baietzak lortu zuen hasierako adostasuna. Eta horren ondorioz, 1997. urtearen erditik 2001. urtea arte garapen-politiken krisi larria jasotzen da, konfiantza-harremanak galduta zeudelako baita antolamenduaren eskeman agertzen ziren proposamenak indarrean jartzeko ezintasun praktikoa zegoelako. Poliki-poliki eztabaida politikoaren funtsa *nola* bermatu garapena (politika publikoa) izatetik, *nork* bideratu behar duen (aldarrikapen instituzionala) izatera pasatzen da.

Ikuspegi honetatik martxan jartzen den dinamikari bi ikuspuntutatik begiratu behar zaio: abertzaletasunarekin duen inplikaziotik, eta dinamika horrek duen edukiaren ikuspegitik.

Alde batetik, EHGK-k eta EHHK-k osatzen duten egitura burubikoak eragile guztien parte-hartzea ahalbidetzen du, hautetsiekin eta administrazioarekin batera. Gobernatzeko era honi esker, abertzaleek ikusten dute lurraldearen eztabaida politikoetan esku-hartze zuzena izateko aukerak zabaltzen direla eta horrela euskal instituzionalizazioaren alde dauden esparru ez-abertzaleekin nolabaiteko aliantza lortzea posible dela.

Beste alde batetik, edukiaren ikuspegia kontuan harturik, sare hauetan bi koalizio dominanteak agertzen dira: lehenengoa, lurralde hauen garapena euren instituzionalizazioarekin lotzen duena, eta abertzaleek bideratzen dutena; eta bigarrenak, politika publikoak eta instituzionalizazioaren eztabaida banatzen saiatzen dena.

Azkenean, koalizio bi horiek 1994tik 2002ra eredu ezberdinak aplikatuz eragiten diote elkarri: 1) horrela, 1992tik 1997ra garapenaren aldeko politika eragile guztien arteko *negoziazioaren* logikapean egiten da; 2) 1997-2000 epean, garapen-proposamenak gauzatzeko eskarien aurrean agintarien isiltasuna dela eta, *mobilizazioaren* logika bideratzen da, instituzionalizazioaren aldeko mugimenduan —Ehunen Deia— jasotzen dena; 3) eskeman agertzen diren proposamenak martxan jartzeko baliabide franko eskaintzen dituen *Hitzarmen Berezia* sinatu ondoren, *autogobernuaren* unea heltzen da, diseinatutako politikak bidean jartzeko saiakera; 4) 2002an, Raffarin Gobernuak zabalitzen dituen deszentralizazioari buruzko eztabaiden hastapenetan, sare biek instituzionalizazio faltaren arazoak gainditzeko ahaleginak egingo dituzte, departamenduzaleen ikuspegitik gertu dauden proposamenak eginez. Hala ere, Estatuaren isiltasunaren aurrean, 2003an instituzionalisten aldetik *konfrontazio-estrategia* hautatzen da, hala Garapen Kontseiluko Zuzendaritza Batzordeko 14 kideren greban nola administrazioaren borondatearekin kontatu gabe erakundeak martxan jartzeko Baterak (100 bat taldek osatzen duten topagune berria) egiten duen proposamenean erakusten den moduan (Ahedo eta Urteaga, 2004).

Konklusio gisa, Iparraldeko garapena bideratzeko estrategia parte-hartzaileak, 1992tik bertako agintariek babestu dutena, *policy windows*ak zabalitzen ditu, lurralde hauen etorkizunaren gaineko eztabaida eragileek duten jarrera eta plan-teamenduetan gehituz. Prozesu honetan abertzaleen esparrua inplikatueneraiko bat dela kontuan harturik, ulergarriak dira (1) Garapen Kontseiluaren zuzendaritza euren esku egotea 1994tik 1997ra: gizarte zibilaren ordezkagarritasun-organoan; eta (2) tokiko eztabaidan euren jarreraren ikuspuntu asko sartzen lortzea, 60ko hamarkadatik baztertuta utzi zituen isolamenduekin apurtu ondoren, 90eko hamarkadaren bukaeran abertzaleek, egitasmoak martxan ipintzeko beharrezkoak ziren baliabideak emateko agintariek zuten borondate faltaren aurrean; (3) euren estrategia erradikalizatzeko legitimizazioa dutela sentitzea, zeharka, aukera-egitura baten aurrean kokatzen baitira; (4) lurralde horretarako departamenduaren sorreraren eskaera historiko baten aurrean zentralitate politikoa eskuratzea eta (5) Iparraldeko eremu politiko, kultural eta ekonomiko askotarikoaren eragileek osatutako koalizioaren antolatzaile bihurtzea.

5. Lurraldea, ezagutza eta kontraboterea

Adierazi dugun bezala, estrategia parte-hartzaileek lurraldearen zentralitatea ahalbidetzen dute eta Iparraldeko eragile gehienek praktiken jomuga horixe bihurtzen da. Horretaz gain, Estatuaren gobernazioak dituen mugek (adostutako proposamenak martxan jartzeko ezintasuna) instituzionalizazioaren aldeko esparru ezberdinen arteko lan bateragarria bultzatzen dute, Abertzaleen Batasunaren gidaritzapean. Horrela, *Ehunen Deiak* hautetsi sozialisten eta kristau-demokraten, CCiren inguruan dabilen indar ekonomikoaren eta euskal kulturaren aldeko mugimenduaren ahalegin bateratuak elkartzen ditu 1999. urtean; horrek zabalkunde handia ematen dio deialdiari eta erantzuna tamainakoa da: Alkateen Biltzarrak, Garapen Kontseiluak eta populazioaren % 66k euren atxikimendua adierazten dute. Mobilizazio-zikloa hasten da orduan eta beronen erritmoa jaisten da 2000. eta 2002. urteen artean: epe horretan indarrak berriro neurtzen eta birmoldatzen

dira. Bitartean, *Demoen* desobedientziaren aldeko apustua kaleratzen da; alderdikeria gaindituz 2000. urteko hauteskundeetarako departamenduaren aldeko hautagai-zerrenda bateratua lortzen da; eta *Appel des 100* pertsonalitateen plataformaren logika gaindituz, jendetza biltzeko gizarte-mugimendua (ADPB) sortzen da.

Hala ere, aldaketa erabakigarria sortzen da 2002. urteko azkenetan, Raffarin-ek iragarritako deszentralizazio-prozesuarekin zenbait esparrutarako aukera berriak eskaintzen direnean. Une horretan bertan departamenduaren aldekoak Batera plataformaren inguruan biltzen dira, barne-mailan antolatuagoa eta kanpora begira eraginkorragoa den tresna egokia. Lau dira euren aldarrikapenak: Departamendua, berezko Unibertsitatea, Euskararen Ofizialtasuna eta Iparralderako Laborantza Ganbera.

Era berean, Hautetsien Kontseiluak berehalako erantzuna ematen du eta instituzionalisten alde agertzen dira, apalki. Horren adibidea da Lamassoure-k egindako proposamena aho batez onartzea, zeinak barne-ministroari bidalitako txosten batean euskararen ofizialtasuna eskatzen duen, baita gertatzen ari zen deszentralizazio-prozesuan Iparraldea bera Estatuak “ezagutu eta berrezagutu” dezan ere (CEPB, 2002); horrela, lehenengo aldiz, Euskal Herria Departamendua sortzeko aukera bere gain hartzen dute. Azkenean, testu berean, hautetsiek Baterak duen beste eskaera baten alde egiten dute: Laborantza Ganberaren sorrera.

Hala eta guztiz ere, 2003. urtearen hasieran gertaerak pilotzen dira bata bestearen atzean. EHHK-k bere proposamena Bordelen aurkeztu ondoren, Estatuak ez die erantzun egindako eskariei (Departamendua, Laborantza Ganbera, Unibertsitatea), sortuak ziren irudikapenak asko izan arren. Horren aurrean departamenduaren aldeko indarren erantzuna erabatekoa da, bi frontetan jaso. Alde batetik, Baterak sentsibilizazio-kanpaina berri bati hasiera ematen dio, 2003ko otsailean Baionan 6000 pertsonako manifestaldian zehazten dena. Beste aldetik, ohiko estrategia indartzen du eta urte horretako urrian egitekoa zen beste manifestaldirako deia egiten du. Hala ere, harreman-mota guztiak apurtuta zeuden jada eta Baterak, *Demoen* jarrera desobedientearen arretaz aztertu ondoren, estrategia ez-konbentzional bat martxan jartzea deliberatzen du. Zentzu horretan, Garapen Kontseiluaren zuzendaritza-batzordeko 14 kidek greba hasten dute. Horiek Kontseiluko partaiderik eraginkorrenak izanik, egoera larria pizten da horren baitan, egoera bere horretan mantenduz gero, garapen eta parte-hartzearen aldeko estrategia bera krisian sar zitekeelako. Azkenik, Baterak iragartzen du 2004. urtetik aurrera bere estrategiaren alde konbentzionala bertan behera utziko duela eta beste bideak erabiltzen hasiko dela, horien artean desobedientzia zibila. Alternatiba horretaz gain, Baterak beste aukera batzuk eskaintzen ditu, hala nola, erreferendum baten deialdia (egun planteatzen ari den gaia) edo Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokor paraleloa sortzea, 2007. urtean hastekoa dena.

Horren guztiaren ondorioz, Iparraldeko eragileek defentsarako jarrera eta logika reaktiboa bertan behera uzten dute (“ezetz Paueko Laborantza Ganberari!”, “ezetz Pirinio Atlantikoen Departamenduari!”), eskatzailearen logika gainditzen dute (“Eskema martxan jartzeko baliabide gehiago”) eta erasotzeko jarrera eta logika proaktiboa hartzen dute, horren lehenengo adierazpena Euskal Herriko Laborantza Ganbera sortzea delarik, 2005eko urtarrilaren 15ean Nafarroa Beherean

dagoen Monjolose herrian. Bere jardunbiderako¹ milioi bat euro behar duen erakunde honek antolaketa berezia du, bere estrategia diseinatzeko esparru batzuen parte-hartzea ahalbidetuz. Horrela, baditu bere barnean: laborarien elkargoak (21 kide); laborari ohien elkargoak (2 kide); laborantzako langile eta laborantza-egitura profesionalen elkargoak (4 kide); konsumitzaileen babesaz arduratzen diren elkarteen elkargoak (2 kide); ingurumena zaintzeaz arduratzen diren elkarteen elkargoak (2 kide); laborantzako baserri-garapenez arduratzen diren elkarteen elkargoak (2 kide); parte-ekarleen elkargoak (2 kide). Gainera, bere iritzia-eremutera gonbidatuak izanen dira Estatuko, Akitania lurraldeko, Kontseilu Orokorreko, Hautetsien Kontseiluko, Garapen Kontseiluko eta Hegoaldeko ordezkariak.

Azken finean, erakunde honen martxan jartzeak sozialistak, berdeak eta kristau-demokratikak, besteak beste, diren hainbat kontseilari orokorren eta eskualdeetako atxikimendua jasotzeaz gain, Iparraldeko Alkateen Biltzarraren Presidentearen onospena jaso du. Horrela, Iparraldean aldaketa sozio-politiko sakona erakusten da, zeren 80ko hamarkadan hautetsi txikiak eta handien artean eta, horien eta administrazioaren artean erlazio klientelarrak gauzatzen zituen erakundeak berak (garai horretan proposamen instituzionalisten aurka agertuz) 2000. urtearen erdialdean kontrabotere moduko bat agertzen duten eta estrategia eratzailerak darabilten taldeen aldeko deia egiten baitu. Gauzak horrela, eragileek dituzten barne-kontraesanek (eskaera instituzionalisten² aurrean alde edo aurka agertuz) tokiko egonkortasun orokorra zailtzen dute: euskal nortasuna oinarrian duen eremu berria eta zabala sortzen da, abertzaletasunaren atxikimendua duena, eta frantziar nazionalismoaren ikur nagusien aurka agertzen dena. Horrela, frantziar nazionalismoa soilik notable handien artean eta administrazioan ordezkaturik geratzen ari da.

Laburbilduz, hasieran dinamika parte-hartzaileak toki-mailako aukeren aurrean adostasuna bilatzen bazuen ere, indarrean zegoen *statu quo* administratiboa zalantzan jarri gabe, azkenean beste errealtate bat gertatu da: 1) parte hartzeko estrategiek eragileek zituzten joera isolazionistak apurtzea ahalbidetu dute; 2) hitzarmen eta "bestearen aldeko jarrera" izatetik Iparraldeak dituen lehentasunen gaineko adostasuna izatera pasatu da; 3) irudikapenen argitzearekin batera errealtatea agertu da: proposamenak martxan jartzeko agintariak emandako baliabideen falta; 4) gauzak horrela, normala da eragileek *nola* pentsatzeatik *nor* pentsatzera pasatzea, hau da, orain Iparraldearen etorkizuna nork bideratu behar duen pentsatzera; 5) orduan, eragileen indarrek bat egiten dute abertzaleek gidatzen duten eta euskal nortasunaren berpizkundea bilatzen duen dinamika batean, denontzat toki-mailako garapenerako ezinbestekoa delako; 6) halaber, administrazioaren aurkako jarrera mobilizazio-zikloaren une baxuan gertatzeak, Batak bere jarrerak gogortzea azaltzen du; 7) horrela, Parisera begiratu beharrean, proposamenak zehazteko barne-mailako indar-korrelazioak zeintzuk diren pentsatzen hasten dira; 8) euren eskaerak era sinbolikoan zehazten saiatzen diren Demoen ekintzen distiraren eraginpean, ELBk eta Batak jauzi bat emango dute: zehaztapen sinbolikotik zehaztapen praktikora, alegia. Eta kontrabotere hau

1. Egun, Iparraldeko laborariak antzeko dirutza ematen diote zerga bidez Paueko Ganberari.

2. Esanguratsua da sozialisten kasua, Espilondo-k gidaturiko sektoreak Batakaren aurka sutsuki agertzen diren bitartean, beste militante batzuek, Kontseilari Orokorra eta Eskualdekoa den Maitia kasu, erakunde horrekin elkarlanean dihardute eta.

egonkortzen ari den seinalea da Prefetak eta administrazioak duten erantzuna, Paueko Laborantza Ganbera diruz eta baliabidez indartuz, Iparraldean bere eginkizuna hobeto gauza dezan. Azkenik, 9) azpimarragarria da gertatu den oinarritzko aldaketa, bai nortasunaren eta lurraldearen ikuspegiari —euskara ikasteko gogo gehiago, Hegoaldearekiko harreman gehiago izatea, Iparraldeko barne-egituratzea—, baita gizarte-sisteman bertan ere. Horrela, Iparraldeko eragileak bi eremutan bananduta agertzen dira, lehenengoa agintariak egituratuta, bigarrena, aldiz, abertzaleek gidatuta.

Konklusio gisa, Iparraldean estrategia parte-hartzaile batek ahalbidetu du lurraldea eragile guztietarako gauza erreal bihurtzea; lurralde honetan bertako nortasuna eta kultura berpiztea; eragileek lurraldearen berezitasunaren alde apustu egitea; eta baita, administrazioak eskaeren aurrean muzin egiten duenean, eragileek toki-mailako kontraboterearen klabearen euren proposamenak zehaztea erabakitzea ere. Beraz, parte-hartzea eta boterea elkarri loturik daude Iparraldean.

Bibliografia

- Ahedo eta Urteaga (2004): *La nouvelle Gouvernance en Pays Basque*, L'Harmattan, Paris.
- Ahedo (2003): *Entre la frustration y la esperanza. Políticas de desarrollo e institucionalización en Iparralde*, IVAP, Oñati.
- , (2005a): "Nationalism in French Basque Country", in *Regional & Federal Studies*, **1**, 3-18.
- , (2005b): "El euskera desde fuera en Iparralde", in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, [inprimatzean].
- CDPB (1994): *Statuts, Conseil de Développement du Pays Basque*.
- CEPB (1995): *Conseil des Elús du Pays Basque. Statuts*.
- , (2002): *Contribution aux Assises des Libertés Locales*, 2002ko azaroa.
- Chaussier, I. D. (1996): *Quel territoire pour le Pays Basque: les cartes de l'identité*, L'Harmattan, Paris.
- Chaussier, J. D. (1994): "La Mission Ravail au Pays Basque (1982) . Pouvoir du discours identitaire ou discours du pouvoir sur l'identité?", in *Le Bulletin du Musée Basque*, **138**, Baiona.
- CP (1993) *Pays Basque 2010, le Pays Basque en Perspective*, Baiona.
- Fourquet (1988): *Planification et développement local au Pays Basque*, Ikerka, Baiona.
- Hemen (2002), *Ipar Euskal Herria: Haren biztanleria eta ekonomia, 1980-2000*, 2002ko iraila.
- Oronos (2001): *Le mouvement culturel basque 1951-2001*, Elkar, Donostia.
- Urteaga, (2004): *La politique linguistique au Pays Basque*, L'Harmattan, Paris.
- Villasante, (2001): *Prácticas locales de creatividad social*, El Viejo Topo, Bartzelona.



